



03 GOGOETA TEORIKOA >>>

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA, DOMINA BATEN AURPEGI BIAK

Anjel Lobera Revilla

Helbide elektronikoa: angel.lobera@bizkaia.net

Gai honi heldu orduko, kulturaren adigaia zer zaidan argitu nahi dut. Horretara, bada, kultura batek hainbat osagai ditu: hizkuntza, ekanduak, bizimodua, gizartea bera antolatzeko ikuspegia, munduaren gaineko ikusmoldea, jantziak, kirola eta folklorea, besteak beste.

Horrenbestez, hizkuntza kultura baten osagaietako bat da, baina ez bakarra. Eta geure buruari sarritan egiten dizkiogun itaunak ageri zaizkigu: Baliteke kultura berezirik izatea hizkuntza berezi barik? Ezinbestekoa ote da hizkuntza jakin bat kultura berezia izateko? Baliteke euskal kulturarik izatea euskara barik? Hizkuntzak komunikabide hutsak ote dira? Horiek eta beste hainbat galdera izan dira gizaldietako pentsalari askoren gogoeta-gune, eta, jakina, beste arlo askotan legez, iritziak ez dira era berekoak izan.

Goiko lerroaldean azaldu dut historian zehar pentsalari askok eta askok euren buruari egin dioten galdera: ba ote dira hizkuntzak komunikabide hutsak? Gurera etorrita, Wilhelm von Humboldtek argi zuen ikuspegi biak, aurki eta ifrentzua, lotuta zeudela, eta berarentzat ezinezkoa zen bata, bestea barik. Hau da, zelakoa den bata, halakoa bestea, edo, euskal esaera zahar bat moldatuta, zelako zuretik halako ezpala. Zientzialari alemaniarraren aburuaren aurkakoa genuen Noam Chomski esta-

tubatuarra, honek uste baitu hizkuntza guztiak ekar daitezkeela eskema orokor jakin batzuetara.

Nire iritzian, hizkuntza bat ez da komunikabidea bakarrik, mundua ikusi eta ulertzeko sistema baten adierazle edo azaltzailea baizen. Hori ez ezik, nik esango nuke, hizkuntzek eurek moldatzen dituztela, neurri handi baten, eurek aditzera ematen dituzten kulturak ere.

Horren ikuspegitik, argigarri gisa, adibide batzuk ipini nahiko nituzke, zergatik uste dut esan nahi dudanaren eredu garbia erakusten dutela horiek. Lehenengo etsenplua doa gizakumeen ikuspegirik hurrenetik; horretara, bada, euskaraz baditugu berba ezberdinak gurasoen umeen arteko harremanak islatzeko, hau da, seme-alabetan baditugu anaiak eta nebak, eta arrebak eta ahizpak. Horiek ez dira hizkuntza ereduak bakarrik, ezperen gizartea antolatzeko dauden modu askotarik baten erakusleak ere. Horregatik, ez nago ados esaten denean berba horiek erabiltzea edo ez erabiltzea euskalkien arteko bereizkuntza baino ez dela. Lau berba horiek argi erakusten dute tratamendu berdintasuna sexuen artean, bata ez dago bestearen azpian, ezpada biak daude elkarren ondoan.

Laburbilduz, esango nuke, hitzak edo berbak galtzea ez dela hizkuntza-jazokizuna bakarrik, ezpada kultura jakin baten ahultasunaren adierazgarri. Hizkuntzak, sarritan, aditzera ematen du kultura horren osasunaren maila. Arazoa ez da ele bat galtzea, kontua da kultur sistema jakin baten galeraren prozesu baten ikustea kultura horretako partaideok, eta euren jatorriko altxorraren ordeztu beste hartzen dute, jatorri arrotzekoa.

Lau berba horiek, beste alde batetik, dira sistema orokor jakin baten osagaiak; modu horretara, adizkiak ezberdinak dira, andrazkoa edo gizonezkoa den berba egiten duena eta gizonezkoa edo andrazkoa den bera-ekin hitz egiten ari dena.

“Arriba, nik neuk ekarriko dinat ogia” diodanean, guztiok dakigu berba egiten duena gizonezkoa dela eta haren solaskidea andrazkoa dela. Hori ez da hizkuntza ezaugarri hutsa, hortik harantzago doa. Eta, lehen esan dudan moduan, kulturak eta hizkuntzak elkarri eragiten diote unean-unean, bata ezin baitaiteke ulertu, bestea gogoan hartu barik.

Mundua ulertzeko moduak ez dira berdinak, eta horren argigarri ipiniko dut hurrengo euskal esaunda zaharra, gaztelaniazko haren ordezkorekin batera. Horretara, bada, “I etxako besteik ez dagonako” (“Hi etxerako, besterik ez dagoenerako”) esaeraren gaztelaniazko ordaina izango litzateke “cuando no hay más contigo Tomás”. Euskal esaundaren bihotza “etxea” da, gaztelaniazkoan “persona” den artean. Hori ez da hala-beharra, ez da berez suertatzen den zerbait, eta horrek bere isla garbia du euskal erakunde juridikoetan.

Gaur egun, Bizkaiko eta Nafarroako foru zuzenbideetan “baserria” eta “etxea” dira ardatzak, Espainiako Zuzenbidean “norbanakoa” delarik. Jakina, euskal lurra eta Espainiakoa ez dira era berekoak; ez dira berdinak azalera, ez dira era berekoak orografiaz, ez dira berdinak ez eta

Nire iritzian, hizkuntza bat ez da komunikabidea bakarrik, mundua ikusi eta ulertzeko sistema baten adierazle edo azaltzailea baizen. Hori ez ezik, nik esango nuke, hizkuntzek eurek moldatzen dituztela, neurri handi baten, eurek aditzera ematen dituzten kulturak ere.

Kategorietara etorrita, beraz, historiaren une guztietan, arrazoiak arrazoi, ikusten dugu badirela kultura batzuk zabaltzen direnak euren jatorriko eremutik, eta, horien aurrean, badirela beste kultura batzuk txikitzen direnak. Batzuek irabazten dutena besteek galtzen dute.

adigaiz ere. Horrela, “baserria” edota “etxea” askozaz gehiago dira eraikiak eurak baino. Batasun ekonomikoa adierazten dute, egin litekeen ustiapena erakusten dute. Eta ustiapenok hain dira txikiak, ezik ezin dira banatu. Eurak banatuko balira familiek eurek galduko lukete euren euskarria, eta, horren ondorioz, familiaren etorkizuna bera amaituko litzateke. Halandaze, etxeko jaunak euren seme-alabetako bat aukeratzen du, familia osoaren etorkizuna bermatzeko. Aiarako lurtean, etxeko jaunaren eskubideak zabalagoak ziren, eta edonor aukera zezakeen oinordeko legez.

Horrekin batera baditugu erakunde batzuk, bereziak direnak munduan, berbarako, “alkarpoderosoa”, hau da, andrazko batek eta gizoneko batek erabakitzen dutenean eurentarik baten etxera ezkontzea, ezkondu orduko egiten dute alkarpoderosoa, eurentarik bati zer edo zer jazotzen bazaio, besteak haren heriotzaren ondorik haren ondasunak erabili ahal izateko. Erakunde juridiko hori, esate baterako, galarazita dago Espainiako Zuzenbidean. Sistema bat ez da bestea baino hobea edo txarragoa. Ezberdinak dira, hori baino ez, eta, aldi berean, hori baino gutxiago ere ez. Jakina, erakunde juridiko ezberdinek adigai ezberdinak dakartzate, eta, horren zioz, berba, esaera eta joskera-sistema ezberdinak, berba baten, diskurtso juridikoa nork bere erara moldatzen du.

Beste kasu batzuk aita ditzakegu erakusgarri modura: “abehurrea” edo “bidegaza”. Lekuak norberarenak direla adierazteko markak dira, batak adierazten du “etxea” bertan eraikiko dela, besteak, berriz, bidea norbanako baten jabetzapekoa dela erasotzen du. Eta horrela jarrai dezakegu beste hainbat erakunde juridikorekin, baina bego honetan.

Horrek guztiak, ostera, ez du esan nahi kulturak eta hizkuntzak bakartuta daudenik, elkarren arteko harremanik ez dutenik. Ikuspegi horretatik, adibide hau ekarri nahi dut hizpidera: Foruko herria, Gernikaren ondoan dagoena. Garbi dago haren izenaren aztarren latindarra, garbi dago leku horretan antzina erromatarrak izan zirela eta eragina izan zutela. Baina euskarak, euskal kulturak eta euskal bizimoduak indarrean iraun dute gaurdaino herri horretan. Ez zen behar adinako indarrekoa haien eragina, hau da, orduko denboran munduko herrialderik eta kulturarik indartsuenak zituen herri harena, euskal kultura eta euskal hizkuntza ezabatzeko handik.

Erromatarren aroz dihardugula, esan dezagun, bidenabar, gure zuhaitz askoren izenek latinean dutela sorburua: pagoa, adibidez. Baina euskaldunek jakin izan dute hori guztia euren nortasunaren arabera moldatzen, euren txertatzen eta, akabuan, euren egiten. Hau da, hizkuntzak eta kulturak aberatsagoak dira eurak zabaltzen diren neurrian; nahasteak ez du zertan txarra izan. Arazoa, betiere, gertatzen da hizkuntza jakin batek eta kultura jakin batek hartu baino ez diotenean egiten beste bati, orduan “gain-jartzapena” ageri da, eta hizkuntza eta kultura hartzaileek indarra galtzen dute, eta, buruenik, hil egiten dira. Horixe da hainbat hizkuntzari eta kulturari jazo zaiena.

Kategorietara etorrira, beraz, historiaren une guztietan, arrazoiak arrazoi, ikusten dugu badirela kultura batzuk zabaltzen direnak euren jatorriko eremutik, eta, horien aurrean, badirela beste kultura batzuk txikitzen direnak. Batzuek irabazten dutena besteek galtzen dute.

Gaur egun, asko mintzatzen da hizkuntza-ekologiari buruz, betiere, nire aburuz, adigai hori ez da modu zehatzean erabiltzen, eragin handiko elementuak topatzen ditugulako arlo honetan. Horretara, bada, indarra, izen ona eta nork bere buruaren gainean duen estimu txikia izaten dira eremu honetako baldintzagarriak. Berbarako, elkarren ondoan bizi diren hizkuntza-erkidego biren jazokizun bat azaldu nahi dut oraingoan, hau ere adibide batez emanda. Bilboko metroko igogailu baten iragarki hau ikus dezakegu:

*Interfona
Intérfono
Help point.*

Gaztelania eta ingelesa dira kultura menderatzaile biren adierazpideak, eta bakoitzak eragiten dio berarekin edo beraren ondoan bizi den kulturari, eta, horren ondorioz, azken honen hizkuntzari. Halandaze, egin diezaiogun itaun hau geure buruari: euskara gaztelaniaren ondoan bizi beharrean, ingelesaren ondoan bizi izan balitz, euskal ordaina berbera izango zatekeen? Ez dut uste.

Arazoa, kasu honetan, ez dagokio, aitatu berri dudan bezala, hizkuntzari bakarrik, ezperen kultur erreferenteari; modu horretara, euskaraz, gaztelaniaren eraginez, aparatuari ematen zaio garrantzia, ingelesez, berriz, erabiltzaileari begiratzen zaio. Bata hobea da bestea baino? Nire iritzian, ez; betiere, argi ageri da eragina nondik nora doan, zein den haren norabidea.

Kultura jakin bat, oster, ez da bakarrik hizkuntzak edo erakunde juridikoak osotua, eta beste osagai batzuek ere euren eragina dute eraketa horretan. Esaterako, kirolek badute eragin hezur-mamitzaila izaera ere. Horretara, bada, kultura jakin baten eta hizkuntza jakin baten isla ezberdina eskaintzen dute pilotak, sokatirak, estropadek, ahari-topekek, arditxakurren txapelketek, txinga-eroateak, aizkolari-demek, gizon-probek, idi-probek, mando-probek, barrenariak, fardo-altxatzeak, korrikalariak eta bestek.

Kirol horietan guztietan erabiltzen diren esaldietatik askok eta askok bidea egin dute euskal hizkuntzaren altxor orokorrera, eta, horrenbestez, euskal kulturara. Adibidez, 'azken txanpa' esapidea nekez uler daiteke, ez badago estropadetan egiteko ekandurik. 'Untza' ('iltzea') zer den ezin dakioke azal gizon- nahiz idi-probak zer diren ez dakienari.

Jakin badakigu kirol horiek guztiak eguneango lanetik sortuak direna. Jakin badakigu itsas inguruko herri bateko umeak badakiela zertan

*Horrek, gutxi-asko,
frogatzen du, denbora
igaro arren, bizimodua
aldatu arren, badirela
gauza batzuk, tinko
dirautenak. Eta horrek
laguntzen du Joxe Migel
Barandiaran ataundarrak
esan zigun esaldi
ospetsuak bere horretan
iraun dezan, hau da,
'katea ez da eten' esapide
famatuak.*

*Tentazioa izan ohi dugu
geure kulturaren
betierekotzat hartzen
duguna aldaezintzat
hartzeko, eta, gure baitan
sinesten dugu (guk geure
gogoan nahita hartu barik
ere), aldaketa guztiak
etortzen direla geure
'izaera'ren aurka.
Horregatik, hemen esan
nahi dut horixe dela
modurik onena
euskaltasuna hiltzeko.*

diren urarekin lotuko kirolak, eta baserri-ingurukoak, berriz, badakiela zertan dautzan haren inguruarekin lotukoak.

Kirolen eremuan gabiltzala, bestela baitakoan igarotzen den ohitura bat azaldu nahiko nuke, horrek argi erakusten baitu erregelek, norberarenak izanagatik, ez dutela zertan era batekoak izan. Ikusmolde horretatik, euskal pilota aitatu gurako nuke: eskuz eskuko pilota partidetan, badira kontu bi erabat bereizi egiten dituztenak euskal kirolak: pilota eskaintzea aurkariari, eta partida bakoitzeko tantoak zenbatzea. Bereizkuntza horrek, berriz, darakutsa zelan ulertzen diren gizartea eta giza harremak. Ikus ditzagun:

Pilota partida guztietan, lehenengo eta bat, zozketa egiten da nork egin behar duen lehenengo sakea jakiteko; sakea egin behar duenak, berriz, pilota aukeratzen du, eta bera eskaini beste pilotariari, hau da, errestoa egin behar duenari, eta hori gertatzen da tanto guztietan, errestoa egin behar duenak ikus dezan zelakoa den tanto bakoitza jokatzeko usatzen den pilota. Ez da jendeari begirako keinua, ezpada nork bere aurrean duen aurkariari abantailarik hortik aterako ez diola erakusteko. Horrek bizi izateko modua erakusten du. Gizalegea. 'Nori berea, hori da Zuzenbidearen (Jainkoaren) legea'.

Pilota partidetan bada beste gertakizun bat egundaino iraun duena: tantoen zenbatzea; horrek ere argi adierazten du aurkari bien berdintasuna; egin-eginean ere, tantoa irabazten duenarengandik esaten dira aldian-aldian gertatzen diren jokoaren aldaketak. Bitxikeria eman dezake itxura baten, baina ez da horrela; ostera ere ikusten dugu pilotari biak maila berean tratatzen direla.

Hasieran, pilota erabiltzen zen, herri biren artean, oro har, elkarren ondoan, edo elkarrengandik hurrean zeuden herri biren artean, zeinek zuen pilotaririk (jenderik) onena erakusteko. Gaur egun, ordea, pilota kirol profesionala dela, beste gauza baterako erabiltzen dela, hau da, nork gustukoaren duen pilotaririk onenaren alde jokatzeko, antzinako usadio horrek indarrean dirau. Eta horrexek du garrantzirik herri baten eraketaren ikuspegitik. Beste modu batera esanda, 'garbi' jokatzeko, ez da abantaila gehiagorik hartu nahi, norberari dagokiona baino. Horrek herri baten eitea darakutsa, beste edozeren gainetik.

Horrek, gutxi-asko, frogatzen du, denbora igaro arren, bizimodua aldatu arren, badirela gauza batzuk, tinko dirautenak. Eta horrek laguntzen du Joxe Migel Barandiaran ataundarrak esan zigun esaldi ospetsuak bere horretan iraun dezan, hau da, 'katea ez da eten' esapide famatuak.

Betiere, denbora ez da alferrik igarotzen, eta horrela ikus dezakegu lehen erabat zilegi eta txalotuak ziren ohiturek gaur egungo munduan ez dutela lekurik; horrela, bada, ahari-topekek galdu dute behinola izan zuten gunea. Gaur egun, horrelako kirolek, ikusmira barik, deitora sorra-

razten dute. Animalienganako begirunea ikusmolde batetik beste batera joan delako. Horrenbestez, esan daiteke, beldur barik, 2007. urteko San Andres egunean horrelako saiorik ez dela gertatzen Euskal Herrian.

Eta horretan gure aberria, Euskadi, eta gure herria, Euskal Herria ez dira bakarrak. Adigai orokorra da hori mundu zabalean; izan ere, animalienaganako tratamendu jakin hori da gizaldietan zehar izan diren jokaera batzuk aldatzen ari direla erakusten duena, alegia, animaliak, kasu honetan, modu batera ikustera datorren joera berri baten arabera. Eta gure Herriak ezin dezake ikusmolde orokor horretatik at geratu. Halandaze, badugu beste gogoeta-gai bat: mundu aldakor honetan, zer da aldagai eta zer aldagaitz?

Ematen du, gaur egun, gure aroaren azken hemeretzi gizaldietan ez bezala, badirela balio batzuk orokortu direnak, eta horiek planeta honetako toki guztietan, salbuespenak salbuespen, zaindu behar direla. Beste balio batzuk, oster, ez dira orokortu, eta, horren arioz, ez dago iritzi eraturik horien inguruan (egia esan, iritziak gaur egun hedabideek erutzen dituzte). Nolanahi ere den, horrek guztiak burura ekarri behar digu beste gogoeta-bide bat: kulturak eta euren hizkuntzak ez dira aldaezinak, aldakorrak baizen.

XI. gizaldiko euskarak eta XVIII.ekoak kate baten begi bi osotzen dituzte, baina une jakin bietako euskara horiek, bat izanda, azalean bederen, bilakaera bat agertzen dute: denborak, ohiturek, aurreramendu teknologikoen eta beste hainbat eragilek ekarrikoa. Eta gauza bera gertatzen da beste hizkuntza guztietan. Bide batez, iruzkin bat egin nahiko nuke kontu honen eretzean. Sarri askotan euskarari eskatzen diogu beste ezein hizkuntzari eskatzen ez dioguna. Maiz euskal kultura, kultura barik, mito bat legez ikusi nahi dugu, eta ez gara konturatzen (edo ez dugu konturatu nahi) hori dela biderik bizkorrena geure sena galbidera eroateko.

Tentazioa izan ohi dugu geure kulturaren betierekotzat hartzen duguna aldaezintzat hartzeko, eta, gure baitan sinesten dugu (guk geure gogoan nahita hartu barik ere), aldaketa guztiak etortzen direla geure 'izaera' ren aurka. Horregatik, hemen esan nahi dut horixe dela modurik onena euskaltasuna hiltzeko. Inork uste al du gaur egun dantzak egiten direla orain mende bi egiten ziren moduan? Baten bati burutik igaro ote zaio gaur egungo euskara orain ehun urtekoa bezalakoa dela? Bizi gaitzen errealitatean. Hauxe da daukaguna, eta moldatu beharko dugu horren arabera, gu geu biziko bagara.

Ikuspegi horretatik, hizpidera ekarri nahi dut dantzen jazokizun bat, pilotaren bilakaeraren aurkako dena: aurreku dantza. Hain zuzen ere, aurrekulariak dantza amaitutakoan, gaur egun, plazara bildutako jendeak txaloka jasotzen du haren ekinaldia. Antzina, ez zen horrela egiten, eta aurrekulariari agurra bueltatzen zitzaion burua makurtuz, dantza hori ohorezko ekitaldia baita, ikuskizuna barik. Hau da, txalo-jotzea da une honetan gure mirespena erakusteko daukagun modurik zabalena mun-

*Etorkizun hurbilari
begira, eta gerora ere bai,
euskaldunok jakin behar
dugu moldatzen mundu
zabaleko txoko
guztietatik datozkigun
aldaketen arabera, eta
euskaldunok jakin behar
dugu, ez badakigu
horretara moldatzen,
geure burua galduko
dugula.*

duan, baina esan behar dugu hori ez dela bakarra kultura guztietarako. Are gehiago, Mendebaldeko kulturen erakusgarria da, eta, ikuspegi horretatik, euskal kulturak berea zuen keinua laga du alde batera, kanpotik etorriko beste bat jartzeko haren lekuan. Txarra al da? Galgarria ote da? Ez dakit, baina horixe da guk duguna.

(Aurrera orduko, onartu behar dut, inork beste iritzirik har ez dezan, ni hizkuntza eta ohitura kontuetan egunean baino egunean garbizaleagoa naizela; aldi berean, ostera, onartu behar dut, jakin badakidala oraingo uneko eta etorkizun hurbileko moduen arabera moldatu beharko dudala neure burua, bertan hil behar ez badut kultura eta hizkuntza jakin batzuetako partaide gisa).

Umeen jolasak dira ale berdingabeak, euskal gizartearen ekanduak zelan aldatu diren ikusteko. Orain berrogeita hamar bat urte arte, umeek baserrietan aponekin jolasten zuten; bildotsa jaten zenean etxe baten, haren hezur batzuk erabiltzen ziren umeek eurek olgatzeko. Gaur egun, zenbat euskal ume daki zer den apona? Une honetan jostailuak Txinatik edo batek badaki nondik datozela, non dago euskal berezitasuna? Ume euskaldunek jolasten dute munduko beste edozein ume olgatzten duen modu berean.

Euskaraz dauden jolasak, salbuespenak salbuespen, mundu zabaleko jostailuen euskal bertsiok dira, baina ez dago hortik ateko berezitasunik. Kasu honetan, euskara da ezberdin egiten gaituen ezaugarri nagusia, betiere, berak adierazten dituen adigaiak, ikusmoldeak eta enparauak ez dira euskal senetik sortuak; esan dezagun argi: joera orokortzailearen eremuan gaude, beste hizkuntza guztiak dauden legez, salbu eta ingelesa.

Horren ondoan bada beste jazoera bat, gure gizarteak bizi duena: baserri-girotik hiri-ingurura aldatzea. Euskal kulturaren ezaugarri nagusiak lehen sektorean izan ditugu azken urteetan, hala baserrian, nola itsasoan. Urteak igaro ahala, eta nik, data mugarri legez, 1970eko urteetako hamarkada ipiniko nuke mugarri gisa ondokoa esateko: urte horietatik atzera euskal gizarteak, mundu zabaleko jazokizunarekin bat, aldatu ditu bere ezaugarri nagusiak, eta une honetan gizarte hiritar baten eitea dauka.

Horren adibide bat ipini nahiko nuke horren erakusgarri: Bizkaiko bertsolarien txapelketa baten, gai-jartzaileak gai hau ipini zion bertsolari euskaldun zahar bati: “Hi zuzera hagoan behia haz”. Bertsolari horrek itaundu behar izan zion gai-jartzaileari zer ote zen ‘zuzera’ hori. [Zuzera = umeske]. Argi dago arazoa ez zetzala bertsolariaren euskararen mailan, ezpada beraren kulturaren erreferentea ez zen baserria, uria baizen.

Lan-tresnen esparrua da beste bat, argi erakusten diguna denboraren aldatzea; horretara, bada, antzinako oletako beharginek erabiltzen zituzten tresnak, museoko piezak izateaz gain, liburuetan dauden izenak baino ez dira. Ontzioletan erabiltzen zirenak beste horrenbeste, eta industriaren arloko hainbat eremutan beste hainbeste. Hori galera ote da? Ez dut uste. Hori jazoera orokorra da munduko kultura eta gizarte

guztietan. Gure artean, horrelakoak tragedia gisa bizi ditugu, eta uste dugu gu geu garelako bakarrak munduan horrelako aldaketak 'pairatzen' ditugunak.

Gaur egungo bizimodua biziki aldakorra da. Orain hogeita hamar urte euskaldun gutxiren berbategian zegoen 'ordenagailu' hitza; gaur egun, ordea, txiki-txikitatik usatzen dira umeak eurak erabiltzen, eta eurek darabiltzaten jolas elektronikoen egundoko eragina dute euren prestakuntza pertsonalean.

Horrekin batera, begien aurrean dugun baina bestela baitakoan doakigun jazoera bat aitatu nahi dut: umeek norekin dituzte harremanak? Izan ere, orain berrogei bat urte arte euren harremanak gertatzen ziren generik hurbilenean: auzoko beste umeekin, eta eurek etxetik zekartena eta besteek zeroatena elkarri trukatzeko zizkioten. Handik denbora garrenera, uri handietan, batez ere, beste kultura 'bateko' umeekin olgetan ziren. Gaur egun, ordea, etxetik urten barik, aurpegiz ezagun ez dituzten umeekin (edota gazteekin...) jartzen dira harremanetan, eta beste kultura 'batzuetako' pertsonekin jartzen dira harremanetan. Halandaze, berdin dio umea Zeanurikoa izan edo Barakaldokoa izan, harremanak ez dituzte izaten hizkuntza baten bakarrik, ezpada aurrekoak darabilen hizkuntzaz. Eta hori guztia ez dago mendean hartzerik. Ala gurasoren batek jarriko dio muga bere umeari, honek harremanak izan ditzan hizkuntza (eta kultura) jakin bateko pertsonekin bakarrik?

Honetan guztian, gogoan izan behar dugu gaur egungo bizimoduak eragin diola familiaren barruko transmisioari, ez bakarrik hizkuntzaren eretzean, ezperen kultura eta balioen ikuspegitik. Horretara, bada, garbi dago, norberak bakarrik erakuts dezakeela berak bakarrik dakiena. Inork ezin dezakeela erakutsi berak ez dakiena; areago joanda: nork erakutsi diezaioke ume bati berak ez dakiena?

Eta aurrekoak (gurasoak eta besteak) erakusten ez duguna nork erakutsiko du? Esan nahi dut une honetan: nor da katearen begien arteko lotura? Guztia utzi behar omen dugu hezkuntza sistemaren pentzudan? Hala eta guztiz ere, guk ez diogu erronkari etsi behar. Hezkuntza-sistemak egin behar badu guk egiten ez duguna, orduan zerbait ipini behar dugu geure aurrean, gauza horiek belaunaldi batetik bestera pasatzeko.

Orain arte esaniko guztiak beste gogoeta bat sorrarazi behar digu: zer da kultura?, adigai aldagaitza?, ala adigai aldakorra? Nire aburuz, bederen, azkena da. Guztiok aldatzen gara, guztiok aldatzen dugu geure bizimodua, eta guztiok dakigu datorkigunaren arabera moldatzen. Eta euskaldunok hori egin behar dugu. Euskararik ez dago, euskaldunok ez bada. Euskal kulturarik ez dago, baldin eta euskal herritarrik ez bada.

Etorkizun hurbilari begira, eta gerora ere bai, euskaldunok jakin behar dugu moldatzen mundu zabaleko txoko guztietatik datozkigun aldaketen arabera, eta euskaldunok jakin behar dugu, ez badakigu horretara moldatzen, geure burua galduko dugula.

Aurreko pasarte baten (parentesi artean) esan dudan moduan, gero-ago eta garbizaleagoa naiz kontu hauen eretzean. Aldi berean, ostera, sinesten dut ezin diegula gure osteko belaunaldiei ezer ezarri goitik behera, eta eurek ere egin behar dituztela gure hizkuntza eta kultura transmititu euren ondorengoei igartzeko. Gure belaunaldiak nahi duen beste ezar dezake beste belaunaldien gainean, baina eurek sinesten ez badute, alferrik da, gure osteko belaunaldiek transmitituko dutelako (konturatzaka, beharbada) eurek barruan daroatena, eta eurek sinetsi behar dute hori barru-barruan, bestela alferrik da.

xxi. gizaldiaren hasiera honetan geure burua euskalduntzat dugunok egin dezakegun gauzarik onena da mundu zabaleko kultura handienek egiten dutena ikusi eta, ahal den neurrian eta moduan, behintzat, geurea aldatzea. Bestela, geureak egin du! Ezin dugu ibili gure seme-alabek eta gure ilobek euren etorkizuna erabiltzeko jakinduriarik izango ez balute bezala jardun. Mundua hasi zen gu munduratu baino askozaz lehena-go. Horregatik guztiagatik, guk aurrean dugunari eutsi behar diogu, eta igarotzaile edo transmititzaile izan behar dugu, sekula ez, ostera, iraganeke (daborduko ez dugun eta ikusiko ez duguneko) ondare baten zain-tzaile. Azken modu honetara jokatzen badugu, komisarioak izango gara, ez besterik, eta horixe da egin dezakegun kalterik handiena.■